



## “Enred@dos” DEIALDIA. 2020

GASTEIZKO NAZIOARTEKO 45. ANTZERKI JAIALDIA GASTEIZKO UDALAREN ANTZOKI SAREA - 2020

### OINARRIAK

Gasteizko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailak hainbat jarduera-ildo garatzen ditu sorkuntza artistiko garaikidea sustatu, bultzatu eta zabaltzeko eta herritar orok horretaz gozatzeko aukera izan dezan.

Testuinguru horretan, Udalaren Antzoki Sareak, GASTEIZKO NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIAREN bitartez, deialdi hau egiten du, honako helburu hauekin:

1. Antzoki Sarean eta hiriko sorkuntza artistikoko beste espazio batzuetan publikoa batetik bestera mugitzea, Arte Eszenikoen geroko audientziak garatzen laguntzearen.
2. Arte-lengoaien diziplinartekotasunaren balioa agerian jartzea, eta horiek aberasteko egitate eszeniko bihurtzea.
3. Hiriko zenbait espaziotan sorkuntza- eta antzezpen-zirkuitu egonkorra osatzen laguntzea, eta horietan Nazioarteko Antzerki Jaialdiak presentzia izatea sustatzea.

Banakako lanak nahiz talde-lanak aurkezteko aukera eman nahi zaie bertako artistei, arte eta kultura garaikidea sustatzen duten eta horiek herritarrengana hurbiltzen dituzten ekintzen bitartez.

## OINARRIAK

### **Lehena: Deialdiaren xedea**

Hezkuntza eta Kultura Sailak egiten du deialdi hau, **antzezte-agertoki berriak eskaintzeko eta arte-lengoaiei trukea eta sorkuntza garaikidea sustatzeko, arte eszenikoen alorrean alde aurretik erakutsi gabeko proposamen baten bitartez.**

Jendaurrean erakutsiko da, Arte Eszenikoekin zerikusia duten ikuskizunak normalean antzezten ez diren espazio batean, COVID19 koronabirusa krisiaren ondorioz sortutako egoera berria kontuan hartuta, eta aukeratutako erakundeak aukeratuko eta kudeatuko ditu baimenak, Gasteizko Nazioarteko 45. Antzerki Jaialdiaren esparruan, 2020ko azaroaren 14tik 17ra, deskribatutako euskarria oinarri hartuta.

### **Bigarrena: Eskatzaileen betebeharrak**

Gasteiz hirian beren jarduna egiten duten artistek, erakundeek nahiz elkarteek aurkeztu ahalko dituzte proiektuak.

Jarduteko erabateko gaitasuna izan beharko dute, eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez izan.

Hautatutako proiektua publikoaren aurrean eskainiko da, gorago aipatutako tokian, 4 egunetan, guztira; eguneko emanaldi bat egingo da. Lanak gutxienez 40 minutu iraungo du.

Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren antolakuntza arduratuko da sarrera-salmentaz, Udalaren Antzoki Sarearen bitartez, eta haren esku egongo dira salmenta, prezio eta deskontuen politika eta leihatilako diru-sarreraren bilketa.

Hautatutako proiektuek argitaragabeak izan beharko dute, Jaialdiaren esparruan estreinatu beharko dira eta deialdi honen oinarriek zehazten duten espazioan taularatu beharko dira, ezarritako epeen barruan. Epe horiek Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren antolakuntzak behar bezala adieraziko ditu.

### Hirugarrena: Laguntza emateko prozedura

Garatuko den proiektua hautatzeko, alderatu egingo dira aurkeztutako proposamenak, balioespen-irizpide hauek aintzat hartuta:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Proiektuaren interesa eta kalitatea	14
Proposatutako espazio eszenikoaren originaltasuna eta egokitasuna (kontuan hartuta COVID19 koronabirusa krisiak eragindako egoera berria, bai espazioari dagokionez, bai edukierari dagokionez, bai irisgarritasunari dagokionez)	7
Hizkuntza artistikoen diziplina anitzen presentzia	7
Arte eszenikoetarako publiko berriak sortzera bideratutako ekintzak.	6
Euskera	6
Proiektuaren koherentzia eta bideragarritasuna, aurkeztutako dosierraren eta dokumentazio osagarriaren arabera, planteatutako helburuekin, gauzatze-denborarekin eta baliabideekin	5
Proiektua aurkezten duen konpainiaren, egilearen edo kolektiboaren prestakuntza- eta lanbide-ibilbidea	5
<b>PUNTUAK, GUZTIRA</b>	<b>50</b>

Hautaketa-batzordeak eskatzaileak elkarrizketatu ahal izango ditu, edo haiei buruzko informazio osagarria eskatu, aurkeztutako proposamenak hobeto ebaluatzeko.

Proiektuetako batek ere ez badu lortzen eman daitezkeen puntuen % 50, deialdia esleitu gabe utzi ahal izango du hautaketa-batzordeak.

### Laugarrena: Proiektua/espazio eszenikoa hautatzeko batzordea

Honako hauek osatuko dute hautaketa-batzordea:

Epaimahaiburua: Gasteizko Udalaren Antzoki Sarearen Ataleko burua.

Batzordekideak: Gasteizko Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Udalaren Antzoki Sarearen Ataleko teknikari bat, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sorkuntza artistiko eta eszeniko profesionalarekin lotutako pertsona bat. Udalaren Antzoki Sareak izendatutako ditu bi pertsona horiek.

Ezingo da batzorde horren erabakiaren kontra jo. Eskatzaile guztiei jakinaraziko zaizkie ebazpenak, idatziz.

### **Bosgarrena: Zenbatekoa eta ordainketa**

Deialdi honetarako gehienez 10.000 euro emango dira, BEZa barne, Udalaren Antzoki Sarearen **23.12.20.3342.226.48** partidaren kargura. Zuzkidura horren barruan sartuta daude ordainsariak eta proiektua ekoizteak eta gero antzezteak eta zabaltzeak eragindako gastuak.

Udalaren Antzoki Sareak, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren bitartez, bere gain hartuko ditu arlo hauek: atezain eta aretozainak, ikuskizunerako sarrerren salmenta, SGAEren eskubideak ordaintzea, kontratuaren kudeaketa, eta publizitatea eta zabalkundea Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren barruan.

Ez da emango, ordea, ez materialik, ez langilerik, proiekturako.

Adierazitako diru-kopuruak barne hartuko ditu zergak, behar izanez gero egingo den PFEZaren atxikipena gorabehera. Honela ordainduko da diru-kopuru hori:

- % 50 kontratua izenpetzen denean,
- gainerako % 50a, publikoaren aurrean antzezpena egin ondoren.

Batean nahiz bestean, faktura aurkeztu beharko da aldez aurretik.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak ezingo du inolako zorrik izan Gasteizko Udalarekin.

Ofizios eskatuko du horren gaineko ziurtagiria Kultura Zerbitzuak. Zorrik izanez gero, hala jakinaraziko zaio pertsona edo erakunde eskatzaileari, eta ez da faktura ordainduko harik eta egoera konpondu arte.

Kontratua egingo da hautatutakoekin, atal honetako lehenengo paragrafoan adierazitako zenbatekoan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoari jarraituz.

### **Seigarrena: Aurkeztu beharreko agiriak**

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea, behar bezala beteta.
- Eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu dituela eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekuaren mende ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Proiektuaren titularraren nortasun-agiriaren edo agiri baliokidearen fotokopia.
- ENPRESAREN IFK.
- Jarduera-lizentzia.
- Proiektuaren titular den pertsonaren, espazioaren edo entitatearen ibilbidea/curriculum.
- Beste batzuekin batera aurkeztuz gero, entitatearen nahiz haren ordezkariaren ibilbide edo curriculumaz eta datuez gain, harekin batera parte hartzen duten eragileen gaineko informazio osoa ere aurkeztu beharko da.
- Emanaldietarako proposatutako lekua: jarduera- eta irisgarritasun-lizentzia izan behar du, eta larrialdi- eta ebakuazio-arloko araudia bete behar du (antzoki-sarea egokitzeko taldea prestatuko da zeregin horiek proposatutako espazioan bete ahal izateko).
- Proiektuaren dosierra; alderdi hauek bildu behar ditu:
  - ✓ Proiektuaren izenburua eta garapena.

- ✓ Gidoia eta dramaturgia-proposamena.
- ✓ Proposatutako espazioa, eta haren hautaketa justifikatzea.
- ✓ Lantalde artistikoa.
- ✓ Lantalde teknikoa.
- ✓ Gauzatzeko egutegia.
- ✓ Gutxi gorabeherako aurrekontu banakatua, finantziario propioa izan lezaketen kontzeptuak zehaztuta.
- ✓ Elkarrekin aurkeztuz gero, erakundearen eta/edo ordezkari gisa jarduten duen pertsonaren datuez eta ibilbideaz/curriculumaz gain, parte hartzen duten agenteen informazio osoa.

Eskabideari ez bazaizkio eranstean atal honetan zehaztu diren agiriak, hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari egoera hori konpon dezan. Hala egin ezean, bertan behera utzitzat joko da eskabidea.

### **Zazpigarrena: Aurkezteko epea eta lekua**

Proiektuak aurkezteko epea: deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik 2020ko ekainaren 22ra arte.

Posta elektronikoz aurkeztu beharko dira proiektuak, helbide honetara igorritik:

[gestionteatros@vitoria-gasteiz.org](mailto:gestionteatros@vitoria-gasteiz.org)

Posta elektronikoz egiaztatuko da eskabidea eta agiriak jaso direla. Hortaz, egiaztapena jasotzen ez bada, ondorioztatu beharko da agiriak ez direla heldu.

### **Zortzigarrena: Deialdia ebazteko epea**

Hautaketa-batzordeak deialdi honetako 7. puntuan zehaztu diren irizpideak aintzat harturik aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztu diren eskabideak eta agiriak.

Eskabideak balioetsi ondoren, emaitzaren berri emango du batzordeak, gehienez 10 eguneko epean —eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik—. Idatziz jakinaraziko da ebazpena.

### **Bederatzigarrena: Jarraipen-batzordea**

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta hura arduratuko da proiektua behar bezala garatzen den ebaluatzeaz.

Batzorde horrek behar adina bilera eskatu ahal izango ditu, kontratuan jasotzen diren zehaztapen eta betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Halaber, batzorde horri dagokio kontratua gauzatzeko orduan planteatzen diren egokitzapenak eta aldaketa-proposamenak baimentzea, eta proiektuaren kanpo-komunikazioa gainbegiratzea.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe laguntza kendu ahal izango da, batzordeak txostena egin ondoren.

### **Hamargarrena: Pertsona, talde edo espazio onuradunaren betebeharrak**

Deialdi honetan hautatzen den proiektuaren titular den pertsona edo entitateak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a) Espazioaren titularra den erakundearekin beharrezko kudeaketa guztiak egitea, erakunde publikoa zein pribatua izan, esparru horretan hautatutako ikuskizuna egin ahal izateko, deialdi honetan adierazitako baldintzak eta araudiak kontuan hartuta.
- b) Hautaketa-batzordearen erabakia onartzekoa.
- c) Proiektua deialdian zehazten den epean eta aurreikusten diren baldintzetan gauzatzekoa.
- d) Gehienez hamar eguneko epean, onartzen duela idatziz berrestekoa. Onartzen duela berretsi ondoren, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia / Udalaren Antzoki Sarea harremanetan jarriko da hautatutakoarekin, eta

kontratua sinatuko dute proiektua gauzatzeko berriazko klausulak finkatze aldera.

- e) Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada horren berri idatziz ematekoa.
- f) Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatekoa.
- g) Proiektua aurreikusitako epean eta baldintzetan gauzatzekoa —bestela, uko egin beharko diote laguntzari, eta, diru-kopururen bat jaso badute, itzuli—.
- h) Obra, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakustekoa, harik eta Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiak/Udalaren Antzoki Sareak emandako jarraibideekin bat etorritik erakusten den arte.
- i) Proiektuaren komunikazio egokirako beharrezko diren informazioa eta dokumentazioa ematekoa, eta, behar izanez gero, proiektuaren barruan ekoizten diren irudiak jendaurrean erreproduzitu eta erakusteko eskubidea Gasteizko Udalari lagatzekoa.
- j) Proiektuaren publizitate guztian —Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian / Udalaren Antzoki Sarean nahiz beste inon egiten dela ere— Gasteizko Udalaren eta Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren / Udalaren Antzoki Sarearen logotipoak jartzekoa, koproduktore gisa.
- k) Programa bukatu ondoren, hilabeteko epean, egindako lanaren oroitidazkia aurkeztekoa —edukiak kontratuan zehaztuko dira—.

### **Hamaikagarrena: Dokumentazioa itzultzea**

Hautatu gabeko proiektuak itzuli egingo dira eskatzaileak hala eskatuz gero, erabakiaren berri jakinarazi eta 30 egun naturaleko epean. Denbora hori igarota, gainerako proiektuak txikitu egingo dira.

### **Hamabigarrena: Oinarriak interpretatu eta onartzea**

Oinarri hauen interpretazioan sortzen den zalantza oro Gasteizko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailak argituko du.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du.



Argibideak:

Udalaren Antzoki Sarea. Principal antzokia.

San Prudentzio kalea, 29.

01005 VITORIA-GASTEIZ

+34 945 161 326

[gestionteatros@vitoria-gasteiz.org](mailto:gestionteatros@vitoria-gasteiz.org)

[www.principalantzokia.org](http://www.principalantzokia.org)

## I. ERANSKINA

“ENRED@DOS” DEIALDIA. UDALAREN ANTZOKI SAREA.

GASTEIZKO NAZIOARTEKO 45. ANTZERKI JAIALDIA, 2020

..... jaunak/andreak —NAN zk.: .....  
—, ..... erakundeko ..... den aldetik.

Entitatearen IFK:.....

Entitatearen helbidea:.....

Telefonoa: ..... Faxa: .....

Helbide elektronikoa:.....

### ADIERAZTEN DU:

Gasteizko Udalaren Antzoki Sarearen “ENRED@DOS” deialdia ikusi dut, eta bertan adierazitako oinarrien jakitun naiz.

### ESKATZEN DU:

Diru-laguntza hau emateko: ..... euro, proiektu hau bideratzeko: .....

Horren kostua, guztira, ..... eurokoa da —galdatutako agiriak eranstean dira, eta benetakoak direla egiaztatzen—.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko .....aren.....(e)an

(Eskatzailearen izenpea eta, erakundea bada, zigilua)

Ematen ari zaren xehetasunak erakunde honek duen “Jardueren Kudeaketa eta Zabalkundea” fitxategi automatizatuan sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera. Udalak bere eskumenen alorrean antolatzen dituen interes kultural edo sozialeko jarduerak kudeatu, ezagutarazi eta sustatzea da fitxategiaren helburua. Horren gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusira jo beharko duzu, helbide honetara: Espainia plaza, z/g; 01001 Vitoria-Gasteiz, edo herritarrei laguntzeko bulego guztietan.